

HORTZAK GARBITZEA

Gure hortzak zenbat eta luzaroago eta indartsuago eskuilatu, orduan eta garbiago egongo al dira?

Britaniako ikerlariek ezetz diote. Hainbat alternatibarekin proba egin ostean, hortzak garbitzeko modurik egokiena zein den ondorioztatu dute. Bi minutuz eskuilatzeak, gogorregi egin gabe, ematen du emaitzarik onena. Gogorregi garbituz gero, hortzetako esmaltea eta hortzoiak kaltetuko dituzu eta janari hondarrak edo plaka ez dituzu askatuko.

Bente Hansen hortzak garbitzen adituak zera dio: hortzetako eskuila boligrafoa eusten dugun moduan hartzea ideia ona da. "Izkina batetik hasi eta lerro osoan aurrera egin", esan du. "Ez ahaztu mingaina! Usain txarra eragin dezaketen bakterioak izan dezake".



"Hortzak garbitzea" Norvegiako aldizkari bateko artikulua da.

Erabili goian agertzen den "Hortzak garbitzea" artikulua ondoko galdera hauek erantzuteko.

1. galdera: HORTZAK GARBITZEA

R403Q01

Zein da artikularen gaia?

- A Hortzak garbitzeko modurik onena.
- B Hortzetako eskuila motarik onena erabiltzea.
- C Hortz onak izateak duen garrantzia.
- D Jendearen hortzak garbitzeko modu desberdinak.

HORTZAK GARBITZEA PUNTUAZIOA 1

GALDERAREN HELBURUA:

Osatzea eta interpretatzea: ulertzeko modu zabalarekin.

Deskribapen testu labur baten ideia nagusia ezagutzea.

Kreditu osoa

1. kodea: A. Hortzak garbitzeko modurik onena.

Krediturik ez

0. kodea: Bestelako erantzunak.

9. kodea: Erantzun gabe.

2. galdera: HORTZAK GARBITZEA

R403Q02

Zer gomendatzen dute ikerlari britainiarrek?

- A Hortzak ahal bezainbeste aldiz garbitzea.
- B Mingaina ez garbitzen saiatzea.
- C Hortzak gogorregi ez garbitzea.
- D Mingaina hortzak baino maizago garbitzea.

HORTZAK GARBITZEN PUNTUAZIOA 2

GALDERAREN HELBURUA:

Sarrera izatea eta eskuratzea: informazioa bilatzea.

Deskribapen testu labur batean sinonimoak bilatzea.

Kreditu osoa

1. kodea: C. Hortzak gogorregi ez garbitzea.

Krediturik ez

0. kodea: Bestelako erantzunak.

9. kodea: Erantzun gabe.

3. galdera: HORTZAK GARBITZEA

R403Q03 – 0 1 9

Zergatik garbitu beharko zenuke mingaina eskuilarekin, Bente Hansenen arabera?

.....
.....

HORTZAK GARBITZEA PUNTUAZIOA 3

GALDERAREN HELBURUA:

Sarrera izatea eta eskuratzea: informazioa bilatzea.

Deskribapen testu labur batean informazioa kokatzea.

Kreditu osoa

1. kodea: Bakteriei buruz EDO hatsa desagerraraztearen inguruan ari da, EDO bien inguruan. Erantzunean parafrasia bildu edo testutik zuzenean kopia dezake.

- Bakteriak desagerraraztea.
- Mingainak bakteriak izan ditzake.
- Bakteriak.
- Usain txarra saihestu daitekeelako.
- Hatsa edo kiratsa edo usain txarra
- Bakteriak desagerrarazteko eta, horri esker, gehiago hatsik ez izateko. [biak]
- Usain txarra eragin dezaketen bakterio mordoa izan dezake. [biak]
- Bakteriek hatsa eragin dezakete.

Krediturik ez

0. kodea: Erantzun eskasegia edo nahasia eman du.

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerikusirik ez duena eman du.

- Boligrafoa heltzen duzun moduan garbitu beharko zenituzke.
- Ez pasa eskuila gogorregi.
- Ez ahazteko.
- Janari hondarrak askatzeko.
- Plaka kentzeko.

9. kodea: Erantzun gabe.

4. galdera: HORTZAK GARBITZEA

R403Q04

Zergatik aipatzen da boligrafoa testuan?

- A Hortzetako eskuila nola eutsi ulertzen laguntzeko.
- B Boligrafoaren zein hortzetako eskuilaren kasuan, izkina batetik hasi behar duzulako.
- C Hortzak hainbat modutan garbi ditzakezula erakusteko.
- D Hortzak garbitzea idaztea bezain garrantzitsua izan beharko litzatekeelako.

HORTZAK GARBITZEA PUNTUAZIOA 4

GALDERAREN HELBURUA:

Hausnartzea eta ebaluatzea: testuari buruzko hausnarketa egitea eta testuaren forma ebaluatzea.

Deskribapen testu labur batean analogia batek duen helburua ezagutzea.

Kreditu osoa

- 1. kodea: A. Hortzetako eskuila nola eutsi ulertzen laguntzeko.

Krediturik ez

- 0. kodea: Bestelako erantzunak.
- 9. kodea: Erantzun gabe.

ANTZERKIA DA KONTUA

Akzioa hondartzaren alboan dagoen gaztelu batean gertatzen da, Italian.

LEHEN EKITALDIA

- 5 *Gonbidatuentzako luxuzko gela hondartza alboko gaztelu eder batean. Ateak eskuinean eta ezkerrean. Egongela eszenatokiaren erdian: sofa, mahaia eta bi besaulki. Leiho handiak atzealdean. Gau izartsua. Ilun dago eszenatokian. Antzokiko oihala igotzen*
- 10 *denean, ezkerreko atearen atzean ozen hizketan ari diren hainbat gizonezko entzuten ditugu. Atea ireki eta smokinga jantzita duten hiru gizon sartzen dira. Horietako batek argia pizten du berehala. Erdira isil-isilik iritsi eta*
- 15 *mahaiaren inguruan zutik geratzen dira. Elkarrekin eseri dira; Gál ezkerreko besaulkian, Turai eskuinekoan eta Ádam erdian dagoen sofan. Oso isilune luzea, ia desatsegina. Nagiak atera dituzte. Isilunea.*
- 20 *Jarraian:*

GÁL

Zergatik zaude horren pentsakor?

TURAI

- 25 Antzerki lan bat hastea zein zaila den pentsatzen ari naiz. Hau da, pertsonaia nagusi guztiak nola aurkeztu hasieran-hasieran, guztia martxan jartzen denean,.

ÁDÁM

Uste dut gogorra izan behar duela.

- 30

TURAI

Halaxe da, zeharo gogorra da. Antzerkia hasi da. Publikoa isil-isilik geratu da. Aktoreak eszenara sartu eta hor hasten da oinazea. Nor den nor eta zer egin behar duten publikoa

35 ohartzten denerako, ordu laurdena ere pasatu ohi da eta amaigabea dirudi horrek.

GÁL

Garun bitxia duzu. Ezin al duzu zure lanbidez ahaztu minutu batez bada ere?

- 40

TURAI

Ezinezkoa da.

GÁL

- 45 Ez da ordu erdi ere pasatzen antzerkiaz, aktoreez eta antzerki lanez hitz egin gabe ere. Badaude beste gauza batzuk ere bizitzan.

TURAI

Ez, ez dago beste ezer. Antzerkigilea naiz. Horixe da nire madarikazioa.

- 50

GÁL

Ez zenuke zure lanbidearen esklabo izan beharko.

TURAI

- 55 Ez baduzu zure menpe hartzen, esklabo bihurtzen zaitu. Ez dago erdibiderik. Sinetsiezadazue; ez da broma antzerki lana ondo hastea. Horixe izan ohi da eszenatokiko mekanikan topa dezakegun arazorik larrietako bat; hau da,
- 60 pertsonaiak berehala aurkeztea. Ikus dezagun gu hiruron eszena hau. Hiru gizon smokinga jantzita. Demagun gaztelu bikain honetako gela honetan sartu beharrean, eszenatokian sartu direla
- 65 antzerki lana hasi den unean. Nor garen ohartu arte, interes txikiko gai ugariaren inguruan hitz egin beharko lukete. Ez ote litzateke askoz ere errazagoa izango guztia hastea zutitu eta gure burua aurkeztuz?
- 70 *Zutitu egin da.* Gabon. Hirurok gaztelu honetako gonbidatuak gara. Jantokitik iritsi berri gara; afari bikaina eman digute eta bi xanpain botila ere edan ditugu. Nire izena Sándor Turai da; antzerkigilea naiz,
- 75 hogeita hamar urte daramat antzerki lanak idazten, horixe da nire lanbidea. Puntu. Zure txanda.

GÁL

- 80 *Zutitu egin da.* Nire izena Gál da; neu ere antzerkigilea naiz. Neuk ere antzerki lanak idazten ditut, guztiak hemen alboan dudan jaun honekin batera. Antzerkigile bikote ospetsua gara. Komedia eta opereta on guztien programan hau irakur daiteke:
- 85 Gálek eta Turaik idatzia. Jakina, hau nire lanbidea ere bada.

GÁL eta TURAI

Batera. Eta gizon gazte hau...

ÁDÁM

- 90 *Zutitu egin da.* Gazte hau, aurkezpena egiteko baimena ematen badidazue, Albert Ádám da, hogeita bost urteko konpositorea. Gizon atsegin hauentzako musika idatzi dut beren azken operetarako. Hauxe da antzerkirako egin dudan lehen lana. Adineko bi aingeru hauek ezagutarazi egin naute eta orain, beren laguntzarekin, ospetsu bihurtu nahiko nuke. Gaztelu honetara gonbidatu naute. Nire fraka eta smokinga eginarazi dizkidate. Beste modu
- 100 batez esanda, oraingoz, txiroa eta ezezaguna naiz. Horrez gain, umezurtza naiz eta amonak hezi nau. Amona hil egin da. Bakar-bakarrik nago mundu honetan. Ez dut osperik; ez dut dirurik.

- 105 TURAI

Baina gaztea zara.

GÁL

Eta adimentsua.

ÁDÁM

- 110 Eta maiteminduta nago solistarekin.

TURAI

Ez zenukeen hori gehitu beharko. Publikoaren edonork igarri ahalko zukeen hori bestela ere.

Guztiak eseri egin dira.

- 115 TURAI

Beraz... ez al litzateke hori izango antzerki lana hasteko modurik errazena?

GÁL

- 120 Hori egin ahalko bagenu, erraza litzateke antzerki lanak idaztea.

TURAI

Sinets iezadazu, ez da horren zaila. Besterik gabe, pentsatu horren guztiaren inguruan, honela...

- 125 GÁL

Ondo da, ondo da... nahikoa da, ez hasi berriro antzerkiaz hitz egiten, mesedez. Nazkatu naiz. Bihar hitz egingo dugu nahi baduzu.

“Antzerkia da kontua” Ferenc Molnár antzerkigile hungariarrak idatzitako antzerki lanaren hasierako zatia da.

Aurreko bi orrietan agertzen den “Antzerkia da kontua” erabiliz, erantzun ondorengo galderari (Kontuan izan gidoiaren marjinetan zenbaki batzuk agertzen direla galderak aipatzen dituzten zatiak topatzen laguntzeko).

3. galdera: ANTZERKIA DA KONTUA

R452Q03 – 0 1 9

Zer ari ziren egiten antzerki laneko pertsonaiak antzerki oihala **justu** igo **aurretik**?

.....

ANTZERKIA DA KONTUA PUNTUAZIOA 3

GALDERAREN HELBURUA:

Sarrera izatea eta eskuratzea: informazioa bilatzea.

Antzerki lan bateko gertaeren aurretik jazo den ekintza baten erreferentzia topatzea.

Kreditu osoa

1. kodea: Afaria edo xanpaina edan izana aipatu du. Testuaren aipua zuzenean azaldu edo parafasia egin dezake erantzunean.

- Afaldu eta xanpaina edan berri zuten.
- “Jantokitik iritsi berri gara; afari bikaina eman digute” [zuzeneko aipua].
- “Afari bikaina eman digute eta bi xanpain botila ere edan ditugu” [zuzeneko aipua]
- Afaria eta edariak.
- Afaria.
- Xanpaina edan dute.
- Afaldu eta edan egin dute.
- Jantokian zeuden.

Krediturik ez

0. kodea: Erantzun eskasegia edo nahasia eman du.

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerikusirik ez duena eman du.

- Hirurok gaztelu honetako gonbidatuak gara.
- Atearen atzean hizketan ari dira ozen [Zati hori lehen ekitaldian gertatzen da, ez aurretik]
- Adamen fraka eta smokinga eginarazi zituzten. [ez da **justu** testuko gertaeren aurretik gertatu]
- Agertokira ateratzeko prestatzen ari ziren. [Aktoreen inguruan ari da hizketan, pertsonaiengan aritu beharrean]
- Hondartzaren alboan dagoen Italiako gaztelu batean gertatzen da.
- Antzokiaren inguruan hizketan.

9. kodea: Erantzun gabe.

4. galdera: ANTZERKIA DA KONTUA

R452Q04

“(...) ordu laurdena ere pasatu ohi da eta amaigabea dirudi horrek.” (35-36 lerroak)

Turairen ustez, zergatik da ordu laurdena “amaigabea”?

- A Denbora luzea da publikoa isil-isilik eserita mantentzeko betetako antzoki batean.
- B Antzerki lan baten hasieran, badirudi egoera ez dela inoiz argituko.
- C Antzerki lanaren hasiera idazteko antzerkigile batek denbora asko behar duela dirudi beti.
- D Antzerki lan batean, zerbait garrantzitsua gertatzen ari denean, denbora poliki igarotzen dela dirudi.

ANTZERKIA DA KONTUA PUNTUAZIOA 4

GALDERAREN HELBURUA:

Osatzea eta interpretatzea: interpretazio bat garatzea.

Antzerki lan bateko esaldiaren esanahia ondorioztatzea testuinguruko erreferentziak erabiliz.

Kreditu osoa

1. kodea: B. Antzerki lan baten hasieran, badirudi egoera ez dela inoiz argituko.

Krediturik ez

0. kodea: Bestelako erantzunak.

9. kodea: Erantzun gabe.

6. galdera: ANTZERKIA DA KONTUA

R452Q06 – 0 1 9

Irakurle batek hau esan du: "Ádám izango da, ziur asko, gazteluan egoteagatik hiru pertsonaien artean hunkituen dagoena".

Zer esan dezake irakurleak bere iritzia defendatzeko? Erabili testua zure erantzuna arrazoitzeko.

.....
.....

ANTZERKIA DA KONTUA PUNTUAZIOA 6

GALDERAREN HELBURUA:

Osatzea eta interpretatzea: interpretazio bat garatzea.

Iritzi bat defendatzea antzerki lan bateko pertsonaien motibazioa eraikiz.

Kreditu osoa

1. kodea: Ádámen eta beste bi pertsonaien arteko kontrastea aipatu du ondorengo gaietarikoren bat edo gehiago adieraziz: Ádám da hiru pertsonaien artean txiroena edo gazteena eta ez du esperientziarik pertsona ospetsu gisa.
- Ádám txiroa da eta hunkituta egon behar du luxuzko gaztelu batean baitago.
 - Bera ospetsu bihur dezaketen bi tiporekin egoteagatik pozik egon beharko luke.
 - Benetan ospetsuak diren bi gizonekin musika idazten ari da.
 - Gaztea da eta jende gaztea edozein gauzarekin hunkitzen da; hori hala da!
 - Gaztea da gazteluan egoteko. [gutxienekoa]
 - Bera da esperientzia gutxi duena [gutxienekoa]

Krediturik ez

0. kodea: Erantzun eskasegia edo nahasia eman du.
- Hunkituta dago. [galdera errepikatzen du]

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zirikusirik ez duena eman du.

- Artista da.
- Maitemindu egin da. [ez du azalpenik agertu gazteluan dagoelako hunkituta egoteko dituen arrazoien inguruan]
- Ádámek hunkituta egon behar du; ziur asko, solista agertuko da. [testuan ez du aipatzen]
- Smokinga eman diote. [azalpen xehetasuna, ez da arrazoia bere horretan]

9. kodea: Erantzun gabe.

7. galdera: ANTZERKIA DA KONTUA

R452Q07

Oro har, zer ari da Molnár antzerkigilea egiten eszena horretan?

- A Pertsonaia bakoitzak bere arazoak nola konponduko dituen agertzen ari da.
- B Bere pertsonaien bidez, antzerki lan batean amaigabea zer den azaldu nahian ari da.
- C Antzerki lan bateko hasierako ohiko eszena arrunt baten adibidea eskaintzen ari da.
- D Bere sormeneko arazoetako bat erakusteko pertsonaiak erabiltzen ari da.

ANTZERKIA DA KONTUA PUNTUAZIOA 7

GALDERAREN HELBURUA:

Osatzea eta interpretatzea: ulertzeko modu zabalarekin.

Antzerki lan bateko gai kontzeptuala ulertzea.

Kreditu osoa

- 1. kodea: D. Bere sormeneko arazoetako bat erakusteko pertsonaiak erabiltzen ari da.

Krediturik ez

0. kodea: Bestelako erantzunak.

9. kodea: Erantzun gabe.

DIRUZALEA ETA HAREN URREA

Esoporen alegia

Gizon diruzale batek zeukan guztia saldu eta urre lingote bat erosi zuen. Ondoren, horma zahar baten ondoan, lurrean egindako zulo batean sartu zuen. Egunero joaten zen ikustera. Bere langileetariko batek diruzaleak toki hartara etengabe egiten zituen bisita haiek ikusi eta mugimenduak zelatatzea erabaki zuen. Langileak laster aurkitu zuen ezkutatutako altxor haren sekretua eta lurra kenduz, urrezko lingotea atera eta lapurtu egin zuen. Diruzaleak, hurrengo bisitan, zuloa hutsik topatu eta iletik tiraka hasi zen, aieneka. Bizilagun batek, minagatik lur jota ikusita eta zer gertatu zen jakinda, hau esan zion: “Ez tristatu; joan eta hartu harri bat, jarri zuloan, eta imajinatu urrea oraindik hor dagoela. Zerbitzu bera egingo dizu zuri; urrea hor zegoen bitartean, ez zenuen zure eskuetan, eta ez zenuen erabili ere egin.”

Erabili aurreko orrian agertzen den "Diruzalea eta haren urrea" izeneko alegia ondoko galdera hauek erantzuteko.

1. galdera: DIRUZALEA

R433Q01 – 0 1 9

Irakurri beheko esaldiak eta zenbakitu testuko gertaeren ordenaren arabera.

Diruzaleak diru guztia urre lingotea bihurtzea erabaki zuen.

Gizon batek diruzalearen urrea lapurtu zuen.

Diruzaleak zuloa egin eta altxorra han ezkutatu zuen.

Diruzalearen bizilagunak urrea harri batekin ordezkatzeko esan zion.

DIRUZALEA PUNTUAZIOA 1

GALDERAREN HELBURUA:

Osatzea eta interpretatzea: interpretazio bat garatzea.

Kontakizuneko gertaerak ordenatzea

Kreditu osoa

1. kodea: Lauak zuzen: 1,3,2,4, ordena horretan.

Krediturik ez

0. kodea: Bestelako erantzunak.

9. kodea: Erantzun gabe.

2. galdera: DIRUZALEA

R433Q02

Zein da istorio horren mezu nagusia?

- A Ez pilatu lapur ditzaketen ondasunak.
- B Beste pertsona batzuegan konfiantza izatea akatsa da.
- C Zurea den zerbait ez erabiltzea eta ez edukitzea gauza bera da.
- D Ez tristatu alda ezin daitezkeen gauzengatik.

DIRUZALEA PUNTUAZIOA 2

GALDERAREN HELBURUA:

Osatzea eta interpretatzea: ulertzeko modu zabalarekin.

Kondaira bateko ideia nagusia ulertzea

Kreditu osoa

1. kodea: C. Zurea den zerbait ez erabiltzea eta ez edukitzea gauza bera da.

Krediturik ez


0. kodea: Bestelako erantzunak.

9. kodea: Erantzun gabe.

5. galdera: DIRUZALEA

R433Q05 – 0 1 9

Jarraian, "Diruzalea eta haren urrea" kondaira irakurri zuten bi pertsonaren arteko elkarrizketa zatia agertzen da.



Zer esan dezake 2. hiztunak bere ikuspuntua defendatzeko?

.....

.....

DIRUZALEA PUNTUAZIOA 5

GALDERAREN HELBURUA:

Osatzea eta interpretatzea: interpretazio bat garatzea.

Kondairako xehetasun bat ideia nagusiarekin lotzea.

Kreditu osoa

1. kodea: Istorioko mezuan urrea alferrikakoa edo baliorik gabea den zerbaitekin ordezkatzea funtsezkoa dela identifikatu du.

- Beharrezkoa zen baliorik ez duen zerbaitekin ordezkatzeko mezua igortzeko.
- Harria elementu garrantzitsua da istorioan; izan ere, urreak egin zion mesedea ikusita, ondorio bera izango zukeen harri bat lurpean sartuta ere.
- Harria baino hobea den zerbaitekin ordezkatu izan bazenu, mezuaren gai nagusia galduko zenuke, lurperatutako horrek alferrikakoa izan behar baitu.
- Harria erabilerarik gabea da, baina diruzalearen kasuan urrearekin ere gauza bera gertatzen zen!
- Zerbait hobea erabiliko zukeen zerbait izango zen (ez zuen urrea erabili, eta hori da mutilak nabarmendu nahi duena).

Krediturik ez

0. kodea: Erantzun eskasegia edo nahasia eman du.

- Harria garrantzitsua zen ipuinean. *[galdera errepikatzen du]*
- Harria izan behar zuen. *[azalpena falta da]*
- Ez zitekeen gauza bera izango. *[nahasia]*

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerikusirik ez duena eman du.

- Harria izan behar zuen, harria astuna baita.

9. kodea: Erantzun gabe.

6. galdera: DIRUZALEA

R433Q06 – 0 1 9

Zergatik lurperatu zuen diruzaleak bere urrea?

.....
.....

DIRUZALEA PUNTUAZIOA 6

GALDERAREN HELBURUA:

Hausnartzea eta ebaluatzea: testuari buruzko hausnarketa egitea eta testuaren edukia ebaluatzea.

Hipotesiak egitea pertsonaiaren ekintzak dituen arrazoiengatik inguruan, aurretiazko ezagutzak testuko informazioarekin bateratuz.

Kreditu osoa

1. kodea: Diruzaleak urrea modu seguruan gorde nahi zuela EDO beldur zela ulertu du.

- Ezkutatzeke.
- Ezkutatuz gero, inork ez ziokeela kenduko uste zuen.
- Toki seguruan gorde nahi zuen.
- Argi dagoenez, apur bat erotuta zegoen eta lurperatzea bankuan gordetzea baino seguruagoa zela uste zuen! *[ez egin kasurik kondaira idatzi zuten garaian bankuak bazeudela sinetsi izanari, nahiz eta ustea okerrekoa izan]*

Krediturik ez

0. kodea: Erantzun eskasegia edo nahasia eman du.

- Inozoa izan zen.

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerikusirik ez duena eman du.

- Lapurtu egin nahi zuen.

9. kodea: Erantzun gabe.

7. galdera: DIRUZALEA

R433Q07 – 0 1 9

Nola lortu zuen diruzaleak urre lingotea?

.....

DIRUZALEA PUNTUAZIOA 7

GALDERAREN HELBURUA:

Sarrera izatea eta eskuratzea: informazioa bilatzea.

Testu labur bateko hasieran modu esplizituan agertzen den informazioa kokatzea

Kreditu osoa

1. kodea: Zeukan guztia saldu zuela aipatu du. Erantzunean parafrasia bildu edo testutik zuzenean kopia dezake.

- Zeukan guztia saldu zuen.
- Bere ondasun guztiak saldu zituen.

Krediturik ez

0. kodea: Erantzun eskasegia edo nahasia eman du.

- Berea zen.
- Irabazi egin zuen.

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerikusirik ez duena eman du.

- Lapurtu egin zuen.

9. kodea: Erantzun gabe.

ODOLARI BURUZKO DEIA



Odola ematea ezinbestekoa da.

Ez dago giza odolaren sustituto moduan erabil daitekeen produkturik. Odola ematea, beraz, ordezkaezina da eta bizitzak salbatzeko ezinbestekoa.

Frantzian, urtero, 500.000 paziente baliatzen da odol transfusioez.

Odola ateratzeko tresnak esterilizatu egin dira eta erabilera bakarrekoak dira (xiringa, hodiak, poltsak).

Ez dago inolako arriskurik odola ematean.

Odola ematea:

Emateko erarik ezagunena da eta 45 minutu eta ordubete artean irauten du.

450 ml-ko poltsa hartu ohi da, zenbait lagin txikiz gain, probak eta azterketak horietan egiteko.

- Gizonezkoek urtean bost aldiz eman dezakete odola; emakumezkoek, aldiz, hiru aldiz.
- Odol emaleak 18 eta 65 urte artekoak izan daitezke.

Odol emate bakoitzaren artean, gutxienez, 8 asteko tartea egon behar da.

Aurreko orrian agertzen den “Odolari buruzko deia” Frantziako webgune batekoa da. Erabili “Odolari buruzko deia” artikulua ondoko galdera hauek erantzuteko.

11. galdera: ODOLARI BURUZKO DEIA

R429Q11

Zein da “Odolari buruzko deia” izeneko testuaren helburu nagusia?

- A Jendea odola ematera animatzea.
- B Odola ematearen arriskuak deskribatzea.
- C Odola ematera nora joan zaitezkeen azaltzea.
- D Jende askok odola modu erregularrean ematen duela erakustea.

ODOLARI BURUZKO DEIA PUNTUAZIOA 11

GALDERAREN HELBURUA:

Osatzea eta interpretatzea: ulertzeko modu zabalarekin.
Iragarki bateko helburu nagusia ulertzea

Kreditu osoa

1. kodea: A. Jendea odola ematera animatzea.

Krediturik ez

0. kodea: Bestelako erantzunak.

9. kodea: Erantzun gabe.

6. galdera: ODOLARI BURUZKO DEIA

R424Q06 – 0 1 9

“Odolari buruzko deia” testuaren arabera, zergatik da odola ematea ordezkazina? Kopiatu testuaren esaldi bat zergatia azaltzeko.

.....
.....

ODOLARI BURUZKO DEIA PUNTUAZIOA 6

GALDERAREN HELBURUA:

Sarrera izatea eta eskuratzea: informazioa bilatzea.
Iragarkian modu esplizituan agertzen den informazioa topatzea.

Kreditu osoa

1. kodea: “Ez dago giza odolaren sustituto moduan...” hasiera duen esaldia edo haren zati bat kopiatu du (edo parafrasia erabili).
- Ez dago giza odolaren sustituto moduan erabil daitekeen produkturik.
 - Ez dago sustituto moduan erabil daitekeen produkturik.
 - Ez dago erabat sustituituko lukeen produkturik.
 - Ezin daiteke substituitu.
 - Sustituitzekorik ez [gutxienezkoa]

Krediturik ez

0. kodea: Erantzun eskasegia edo nahasia eman du.
- Odola ematea, beraz, ordezkazina da. [galdera errepikatzen du]
 - Ezin duzu ordezkatu. [galdera errepikatzen du]
 - Bizitzak salbatzen ditu.
 - Ezinbestekoa da.

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerikusirik ez duena eman du.

- Frantzian, urtero, 500.000 paziente baliatzen da odol transfusioez.

9. kodea: Erantzun gabe.

8. galdera: ODOLARI BURUZKO DEIA

R424Q08 – 0 1 9

Azken hamabi hilabeteotan odola bi aldiz eman duen 18 urteko andre batek berriro eman nahi du. “Odolari buruzko deia” testuaren arabera, zein baldintzaren arabera egin ahalko du?

.....
.....

ODOLARI BURUZKO DEIA PUNTUAZIOA 8

GALDERAREN HELBURUA:

Osatzea eta interpretatzea: interpretazio bat garatzea.

Ondorioen bat ateratzeko testu laburrean loturak egitea.

Kreditu osoa

1. kodea: Azken aldiz odola eman zuenetik nahikoa denbora igaro dela identifikatu du.
- Azken aldiz odola eman zuenetik 8 aste igaro diren ala ez kontuan hartuta.
 - Nahikoa denbora igaro bada ahal izango du; bestela, ez.

Krediturik ez

0. kodea: Erantzun eskasegia edo nahasia eman du.

- denbora

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerikusirik ez duena eman du.

- Horretarako adina badu, bai.
- Aurten ez badu gehiegitan eman odola, ahalko du.

9. kodea: Erantzun gabe.

9. galdera: ODOLARI BURUZKO DEIA

R429Q09

Testuan hau irakur dezakegu: “Odola ateratzeko tresnak esterilizatu egin dira eta erabilera bakarrekoak dira...”

Zergatik aipatzen du testuak informazio hori?

- A Odola ematea segurua dela ziurtatzeko.
- B Odola ematea ezinbestekoa dela nabarmentzeko.
- C Gure odola zertan erabiliko den azaltzeko.
- D Azterketen eta proben inguruko xehetasunak emateko.

ODOLARI BURUZKO DEIA PUNTUAZIOA 9

GALDERAREN HELBURUA:

Hausnartzea eta ebaluatzea: testuari buruzko hausnarketa egitea eta testuaren edukia ebaluatzea.

Iragarki bateko esaldian agertzen den helburu konbentzigarria ezagutzea.

Kreditu osoa

1. kodea: A. Odola ematea segurua dela ziurtatzeko.

Krediturik ez

0. kodea: Bestelako erantzunak.

9. kodea: Erantzun gabe.

10. galdera: ODOLARI BURUZKO DEIA

R429Q10

"Odolari buruzko deia" testuaren arabera, ondorengo pertsonak eman al dezakete odola?

Biribildu "Bai" edo "Ez" pertsona bakoitzerako.

Pertsona	Odola eman dezake?
Aurretik sekula odolik eman ez duen 15 urteko mutikoa.	Bai / Ez
Duela sei aste odola eman duen 30 urteko gizona.	Bai / Ez
Duela urtebete odola eman duen 20 urteko emakumea.	Bai / Ez

ODOLARI BURUZKO DEIA PUNTUAZIOA 10

GALDERAREN HELBURUA:

Osatzea eta interpretatzea: interpretazio bat garatzea.

Iragarki batean emandako irizpide multzoa beste kasu batzuetarako aplikatzea

Kreditu osoa

1. kodea: Zuzenak diren hirurak: Ez, Ez, Bai ordena horretan.

Krediturik ez


0. kodea: Bestelako erantzunak.

9. kodea: Erantzun gabe.

GLOBOA

Altueraren errekorra aire beroko globoetan

Vijaypat Singhanian pilotu indiarrek aire beroko globoen altueraren errekorra apurtu zuen 2005eko azaroaren 26an. Itsasoko mailarekiko 21.000 metrora globoa hegan eraman zuen lehen pertsona izan zen.



Erabili aurreko orrian agertzen den "Globoa" testua, ondoko galdera hauek erantzuteko.

1. galdera: GLOBOA

R417Q01 – 0 1 9

Zenbat denbora behar izan zen Vijaypat Singhaniaren globoa puzteko?

.....

GLOBOA PUNTUAZIOA 1

GALDERAREN HELBURUA:

Sarrera izatea eta eskuratzea: informazioa bilatzea.

Deskribapen testu diagramatiko batean modu esplizituan agertzen den informazioa topatzea.

Kreditu osoa

1. kodea: 2,5 ordu jartzen du.

- Bi ordu eta erdi.
- 2,5 h.
- 2 ½ h

Krediturik ez

0. kodea: Erantzun eskasegia edo nahasia eman du.

- Hiru ordu baino gutxiago.
- Bi eta hiru ordu artean.
- Bi ordu baino zertxobait gehixeago.
- ordu gutxi batzuk

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerikusirik ez duena eman du.

- 483 ordu.

9. kodea: Erantzun gabe.

3. galdera: GLOBOA

R417Q03 – 0 1 2 9

Vijaypat Singhaniak beste bi garraiobide batzuetan topa dezakegun teknologia erabili zuen. Zein garraiobide?

1.

2.

GLOBOA PUNTUAZIOA 3

GALDERAREN HELBURUA:

Sarrera izatea eta eskuratzea: informazioa bilatzea.

Deskribapen testu diagramatiko batean modu esplizituan agertzen den informazioaren bi zati topatzea.

Kreditu osoa

2. kodea: Hegazkinak ETA espazio ontzia aipatu ditu (edozein ordenatan). *[bi erantzunak ilara bakarrean bil ditzake]*

- 1. Aireko nabeak..
2. Espazio ontzia.
- 1. Hegazkinak.
2. Espazio ontzia.
- 1. Aireko bidaia.
2. Espazio bidaia.
- 1. Jumboak.
2. Espazio koheteak.
- 1. Jetak.
2. Koheteak.

Kreditu partziala

1. kodea: Hegazkinak EDO espazio ontziak aipatu ditu, horietako bat BAKARRIK.

- Espazio ontzia.
- Espazioko bidaia.
- Espazioko koheteak.
- Koheteak.
- Espazio ontzia .
- Hegazkinak.
- Aire bidaia.
- Jumboak .
- Jetak.

Krediturik ez

0. kodea: Erantzun eskasegia edo nahasia eman du.

- Aireontziak.

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerkusirik ez duena eman du.

- Espazioko jantziak. *[ez da garraio mota bat]*

9. kodea: Erantzun gabe.

4. galdera: GLOBOA

R417Q04 – 0 1 9

Zein helbururekin sartu dute jumbo jet baten irudia testuan?

.....
.....

GLOBOA PUNTUAZIOA 4

GALDERAREN HELBURUA:

Hausnartzea eta ebaluatzea: testuari buruzko hausnarketa egitea eta testuaren edukia ebaluatzea.

Deskribapen testu diagramatiko labur batean irudi batek duen helburua identifikatzea.

Kreditu osoa

1. kodea: Altuera aipatu du. Jumbo jetaren eta globoaren arteko alderaketa aipa dezake.
- Globoak zein altuerara iritsi zen erakusteko.
 - Globoak oso, oso altu igo zela nabarmentzeko.
 - Errekorra benetan itzela dela erakusteko (jumbo jetak baino altuago iritsi zen!).
 - Erreferentzia puntu bat izateko altuerari dagokionez.

Krediturik ez

0. kodea: Erantzun eskasegia edo nahasia eman du.
- Errekorra benetan itzela dela erakusteko. [*nahasiegia*]
 - Alderaketa egiteko.

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerikusirik ez duena eman du.

- Globoek zein jumbo jetek hegan egin dezakete.
- Itxura polita izan dezan.

9. kodea: Erantzun gabe.

5. galdera: GLOBOA

R417Q05 – 0 1 9

Testuaren behealdean munduaren mapa agertzen da. Zergatik agertzen da laukizuzen bat mapan?

.....

.....

GLOBOA PUNTUAZIOA 5

GALDERAREN HELBURUA:

Hausnartzea eta ebaluatzea: testuari buruzko hausnarketa egitea eta testuaren forma ebaluatzea.

Deskribapen testu diagramatikoan irudi grafiko baten esanahia ebaluatzea.

Kreditu osoa

1. kodea: Altuera errekorra ezarri duen tokia aipatu du EDO mapa txikia handiarekin lotzeko erabili du.
- Globoarekin toki horretan hegan egin zuelako.
 - Indian egin zuelako hori.
 - Munduko zein txokotan gertatu zen erakusteko.
 - Kokapena erakusteko munduan.
 - Non gertatu zen erakusteko *[gutxienekoa]*

Krediturik ez

0. kodea: Erantzun eskasegia edo nahasia eman du.
- Zuri erakusteko non *[nahasiegia]*
 - India erakusteko.
 - Nondik aireratu zen erakusteko.


Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerikusirik ez duena eman du.

- Nora joan behar zuen jakin zezan.
- Mundua globo batetik ikusi ahal zuelako.
- Hangoa delako.

9. kodea: Erantzun gabe.

6. galdera GLOBOA

R417Q06



Zergatik irudikatu dira bi globo?

- A Singhaniaren globoaren neurria konparatzeko puztu aurretik eta ondoren.
- B Singhaniaren globoaren neurria beste globo batzuenarekin konparatzeko.
- C Singhaniaren globoak lurretik txikia dirudiela erakusteko.
- D Singhaniaren globoak ia-ia beste baten aurka talka egin zuela erakusteko.

GLOBOA PUNTUAZIOA 6

GALDERAREN HELBURUA:

Hausnartzea eta ebaluatzea: testuari buruzko hausnarketa egitea eta testuaren edukia ebaluatzea.

Deskribapen testu diagramatiko labur batean, lotura duen irudi batek duen helburua ulertzea.

Kreditu osoa

1. kodea: B. Singhaniaren globoaren neurria beste globo batzuekin parekatzeko.

Krediturik ez

0. kodea: Bestelako erantzunak.

9. kodea: Erantzun gabe.

7. galdera: GLOBOA

R417Q07 – 0 1 9

Hasiera puntutik zein distantziatara zegoen Singhanian hegaldiaren amaieran?

.....

GLOBOA PUNTUAZIOA 7

GALDERAREN HELBURUA:

Sarrera izatea eta eskuratzea: informazioa bilatzea.

Deskribapen testu diagramatiko batean modu esplizituan agertzen den informazioa topatzea.

Kreditu osoa

1. kodea: 483 kilometro (edo 480 eta 500 km artean gutxi gorabehera; edo ikasleak diagramako zati zuzena identifikatu duela agertzen duen beste edozein azalpen).
- 483 km.
 - 480 km gutxi gorabehera [onargarria da testuan hau irakur baitezakegu: "Gutxi gorabeherako lurreratze eremua"]
 - ia 500 km [onargarria da testuan hau irakur baitezakegu: "Gutxi gorabeherako lurreratze eremua.]
 - Ezin dugu datu zehatza eman, diagramak gutxi gorabeherako lurreratze eremua soilik ematen duelako, baina 483 km ingurukoa izan behar du.
 - 483

Krediturik ez

0. kodea: Erantzun eskasegia edo nahasia eman du.
- Bide luzea.
 - New Delhitik gertu.
 - lurreratu zen tokia

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerikusirik ez duena eman du.

- 21.000m

9. kodea: Erantzun gabe.

8. galdera: GLOBOA

R417Q08

Zein da testuaren ideia nagusia?

- A Singhania arriskuan egon zen globoz egin zuen bidaian.
- B Singhaniak munduko errekor berria ezarri zuen.
- C Singhaniak itsasoaren eta lurraren gainetik egin zuen bidaia.
- D Singhaniaren globoa erraldoia zen.

GLOBOA PUNTUAZIOA 8

GALDERAREN HELBURUA:

Osatzea eta interpretatzea: ulertzeko modu zabalarekin.

Deskribapen testu diagramatiko baten ideia nagusia ezagutzea.

Kreditu osoa

1. kodea: B. Singhaniak munduko errekor berria ezarri zuen.

Krediturik ez

0. kodea: Bestelako erantzunak.

9. kodea: Erantzun gabe.

TELEFONO MUGIKORREN SEGURTASUNA

Arriskutsuak al dira telefono mugikorrek?

Gakoa

Telefono mugikorrek osasunerako dituzten arriskuen inguruko txosten eztabaidagarriak 90eko hamarkadaren amaieran agertu ziren.

Gakoa

Orain arte, milioika euroko inbertsioa egin dute ikerketa zientifikoetan telefono mugikorren eraginak aztertzeko.

	Bai	Ez
1	Telefono mugikorrek igortzen dituzten irrati-uhinek gorputzeko ehunak bero ditzakete, ondorio kaltegarriak eraginez.	Irrati-uhinek ez dute beroaren bidez gorputzari kalte egiteko gaitasun nahikorik.
2	Telefono mugikorrek sortzen dituzten eremu magnetikoek gure gorputzeko zelulen funtzionamenduan eragina izan dezakete.	Eremu magnetikoak oso ahulak dira ; beraz, arraroa da gure gorputzeko zeluletan eragina izatea.
3	Telefono mugikorren bidezko dei luzeak egiten dituztenak nekeaz, buruko minaz eta kontzentrazio galeraz kezaketen dira, batzuetan.	Efektu horiek ez dituzte sekula ikusi laborategiko ikerketetan, eta bizimodu modernoetako beste faktore batzuen ondorio izan daitezke.
4	Telefono mugikorren erabiltzaileek 2,5 aldiz probabilitate handiagoa dute minbizia garatzeko telefonoko belarrietatik gertu dauden garuneko eremuetan.	Ikerlariak onartu dutenez, ez dago argi igoera horiek telefono mugikorren erabilerarekin loturarik duten.
5	Minbiziaren Ikerketako Nazioarteko Agentziak lotura topatu du haurtzaroko minbiziaren eta linea elektrikoaren artean. Telefono mugikorrek bezalaxe, linea elektrikoek ere erradiazioak igortzen dituzte.	Linea elektrikoek sortzen duten erradiazioa ezberdina da; telefono mugikorretatik ateratzen den energia baino indartsuagoa da.
6	Telefono mugikorren antzekoak diren erradiofrekuentzia uhinek nematodo zizareen gene adierazpena aldatu dute.	Zizareak ez dira gizakiak; beraz, ez dago inolako ziurtasunik adierazteko gure garuneko zelulek modu berean erreakzionatzen dutela.

Telefono mugikorra erabiltzen baduzu...

Gakoa

Telefono mugikorren erabiltzaile kopuru erraldoia kontuan izanda, osasuneko ondorio negatiborik txikienez ere osasun publikoko ondorio handiak izango lituzkete.

Gakoa

2000. urtean, Stewart txostenak (Britainiako txosten bat) ez zuen topatu telefono mugikorrek eragindako osasun arazo ezagunik, baina, batez ere gazteen artean, arreta aholkatu zuen ikerketa gehiago egin arte. 2004an egin zuten txosten berriak ondorio horiek egiaztatzen zituen.

Egin	Ez egin
Dei laburrak egin.	Ez erabili mugikorra harrera ahula denean, telefonoak indar gehiago behar baitu oinarrizko estazioarekin komunikatzeko eta, hori dela eta, irrati-uhin igorpenak gogorragoak dira.
Eraman mugikorra zure gorputzetik urrun piztuta dagoenean.	Ez erosi "XIE" balio altua duen telefono mugikorrik ¹ . Horrek esan nahi du erradiazio gehiago igortzen duela.
Erosi "autonomia" luzeko mugikorra. Eragingarriagoa da, eta indar igorpen gutxiago du.	Ez erosi erakunde independente batek probatu ez duen babeserako aparatuek.

¹ XIE (xurgapen indize espezifiko) indize honek neurtzen du gorputzeko ehunek, mugikorra erabiltzen ari garen bitartean, zenbaterainoko erradiazio elektromagnetikoa xurgatzen duten.

Aurreko bi orrialdeetako "Telefono Mugikorren Segurtasuna" webgune batetako da.

Erabili "Telefono Mugikorren Segurtasuna" ondoko galdera hauek erantzuteko.

2. galdera: TELEFONO MUGIKORREN SEGURTASUNA

R414Q02

Zein da **Gakoen** helburua?

- A Telefono mugikorrek erabiltzearen arriskuak deskribatzea.
- B Telefono mugikorren segurtasunaren inguruko eztabaidak jarraitzen duela adieraztea.
- C Telefono mugikorrek erabiltzen dituzten pertsonen hartu beharko lituzketen arretak deskribatzea.
- D Telefono mugikorrek eragindako osasun arazo ezagunak ez dagoela adieraztea.

TELEFONO MUGIKORREN SEGURTASUNA PUNTUAZIOA 2

GALDERAREN HELBURUA:

Osatzea eta interpretatzea: ulertzeko modu zabalarekin.

Azalpen testu bateko atal baten (taula) helburua zein den ulertzea.

Kreditu osoa

- 1. kodea: B. Telefono mugikorren segurtasunaren inguruko eztabaida jarraitzen duela adieraztea..

Krediturik ez

0. kodea: Bestelako erantzunak.

9. kodea: Erantzun gabe.

11. galdera: TELEFONO MUGIKORREN SEGURTASUNA

R414Q11

“Zaila da frogatzea gauza batek zalantzarik gabe bestea eragin duela”.

Zein da aurreko esaldi honek 4. puntuko informazioarekiko (**Bai** eta **Ez** adierazpenak, **Arriskutsuak al dira telefono mugikorrak?** taulan agertzen direnak) duen lotura?

- A Baiezko argudioa babesten du, baina ez du frogatzen.
- B Baiezko argudioa frogatzen du.
- C Ezezko argudioa babesten du, baina ez du frogatzen.
- D Ezezko argudioa okerrekoa dela erakusten du.

TELEFONO MUGIKORREN SEGURTASUNA PUNTUAZIOA 11

GALDERAREN HELBURUA:

Hausnartzea eta ebaluatzea: testuari buruzko hausnarketa egitea eta testuaren edukia ebaluatzea.

Testutik kanpo dagoen adierazpen orokor baten eta taulako bi adierazpenen artean dagoen lotura ezagutzea.

Kreditu osoa

- 1. kodea: C. Ezezko argudioa babesten du, baina ez du frogatzen.

Krediturik ez

- 0. kodea: Bestelako erantzunak.
- 9. kodea: Erantzun gabe.

6. galdera: TELEFONO MUGIKORREN SEGURTASUNA

R414Q06 – 0 1 9

Begiratu taulako **Ez** zutabearen agertzen den 3. puntuari. Testuinguru horretan, zein izan daiteke “beste faktore” horietako bat? Arrazoiu zure erantzuna.

TELEFONO MUGIKORREN SEGURTASUNA PUNTUAZIOA 6

GALDERAREN HELBURUA:

Hausnartzea eta ebaluatzea: testuari buruzko hausnarketa egitea eta testuaren edukia ebaluatzea.

Aurreko ezagutzak erabiltzea testu batean azaltzen den informazioa agertzeko.

Kreditu osoa

- 1. kodea: Nekearekin, buruko minekin edo kontzentrazio galerekin lotura izan

dezakeen bizimodu modernoko faktoreren bat identifikatu du. Azalpena erdi begi-bistakoa izan edo bertan ager daiteke.

- Nahikoa lo ez egitea. Ez baduzu nahikoa lo egiten, nekatuta egongo zara.
- Lanpetuegi egotea. Horrek nekarazi egiten gaitu.
- Etxeko lan gehiegik nekarazi egiten zaituzte ETA buruko mina eragiten dizute.
- Zarata (horrek buruko mina eragiten du).
- Estresa.
- Berandura arte lan egitea.
- Azterketak.
- Mundua ozenegia da.
- Jendeak ez du dagoeneko denborarik hartzen lasaitzeko.
- Jendeak ez ditu gauzen lehentasunak zehazten; horregatik gaixotzen eta marmarti bihurtzen dira.
- Ordenagailuak.
- Kutsadura.
- Telebista gehiegi ikustea.
- Drogak.
- Mikrouhin labeak.
- E-mail gehiegi bidaltzea.

Krediturik ez

0. kodea: Erantzun eskasegia edo nahasia eman du.

- Fatiga. [*testuko informazioa errepikatu du*]
- Nekea. [*testuko informazioa errepikatu du*]
- Kontzentrazio galera. [*testuko informazioa errepikatu du*]
- Buruko minak. [*testuko informazioa errepikatu du*]
- Bizimodua. [*nahasia*]

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerikusirik ez duena eman du.

- Belarriko mina.
- Arrautzontziak.

9. kodea: Erantzun gabe.

9. galdera: TELEFONO MUGIKORREN SEGURTASUNA

R414Q09

Begiratu ondorengo izenburua duen taulari: **Telefono mugikorra erabiltzen baduzu...**

Ondorengo zein ideiatan dago taula oinarrituta?

- A Telefono mugikorrak erabiltzeak ez du arriskurik sortzen.
- B Telefono mugikorrak erabiltzeak arriskuak sortzen dituen frogak daude.
- C Telefono mugikorrak erabiltzeak arriskuak eragiten dituela edo ez dituela eragiten ez dago argi, baina komeni da kontuz ibiltzea.
- D Telefono mugikorrak erabiltzeak arriskuak eragiten dituela edo ez dituela eragiten ez dago argi, baina ez genituzke erabili beharko ziur jakin arte.
- E **Egin** atalean agertzen diren jarraibideak arriskua serio hartzen dutenentzat dira; **Ez egin** zatiko argibideak, aldiz, gainerako guztientzat dira.

TELEFONO MUGIKORREN SEGURTASUNA PUNTUAZIOA 9

GALDERAREN HELBURUA:

Osatzea eta interpretatzea: interpretazio bat garatzea.

Azalpen testu bateko zati batean agertzen den iritzia ulertzea.

Kreditu osoa

1. kodea: C. Telefono mugikorrak erabiltzeak arriskuak eragiten dituela edo ez dituela eragiten ez dago argi; baina komeni da kontuz ibiltzea.

Krediturik ez

0. kodea: Bestelako erantzunak.

9. kodea: Erantzun gabe.

TELELANA

Etorkizunerako bidea

Pentsatu zein ederra litzatekeen "telelana"¹ edo autopista elektronikoa lan egitea, zure lana ordenagailu bidez edo telefonoz egitea! Ez zenuke berriro zure gorputza indarka sartu beharko bete-beteta dauden autobusetan edo trenetan edo ordu mordoa galdu beharko lanera eta lanetik bidaiak eginez. Nahi duzun tokian lan egin ahalko zenuke. Pentsatu horrek zenbat laneko aukera eskainiko lizukeen!

Josune

Hondamendia gertatzeko zorian

Lanera joateko behar dugun ordu kopurua gutxitzea eta horrekin energia kontsumoa murriztea ideia ona da zalantzarik gabe. Baina helburu hori lortzeko, nahikoa litzateke garraio publikoa hobetzea edo lantokiak jendea bizi den tokietatik gertu kokatzea. Telelana guztion bizimodu beharko lukeela dioen asmo handiko ideiak jendea bere buruan gero eta gehiago murgiltzea ekarriko luke. Benetan nahi al dugu komunitateko partaide izatearen zentzua are gehiago hondatzea?

Iker

¹ "Telelana" Jack Nillesek 70eko hamarkadaren hasieran asmatu zuen hitza da, bulego nagusitik kanpo dagoen ordenagailuan lan egiten duten langileen egoera deskribatzeko (etxean, esate baterako). Langile horiek datuak eta dokumentuak telefono lineen bidez bidali ohi dituzte bulego nagusira.

Erabili goian agertzen den "Telelana" ondoko galdera hauek erantzuteko.

1. galdera: TELELANA

R458Q01

Zein da "Etorkizunerako bidea" eta "Hondamendia gertatzeko zorian" testuen arteko lotura?

- A Argudio ezberdinak erabiltzen dituzte ondorio orokor berberera iristeko.
- B Estilo berean idatzita daude, baina erabat ezberdinak diren gaiei buruzkoak dira.
- C Ikuspuntu orokor bera adierazten dute, baina ondorio ezberdinak ateratzen dituzte.
- D Gai beraren inguruko aurkako ikuspuntuak adierazten dituzte.

TELELANA PUNTUAZIOA 1

GALDERAREN HELBURUA:

Osatzea eta interpretatzea: ulertzeko modu zabalarekin.

Bi argudio testu laburren arteko lotura ulertzea (kontrastea)

Kreditu osoa

1. kodea: D. Biek adierazten dituzte gai beraren inguruko aurkako ikuspuntuak.

Krediturik ez

0. kodea: Bestelako erantzunak.

9. kodea: Erantzun gabe.

7. galdera: TELELANA

R458Q07 – 0 1 9

Aipatu lan mota bat telelanaren bidez egitea zaila izango dena. Arrazoitu zure erantzuna.

.....

.....

TELELANA PUNTUAZIOA 7

GALDERAREN HELBURUA:

Hausnartzea eta ebaluatzea: testuari buruzko hausnarketa egitea eta testuaren edukia ebaluatzea.

Aurretiazko ezagutzak testuan agertzen den kategoriaren arabera den adibide bat sortzeko erabiltzea.

Kreditu osoa

1. kodea: Lan mota identifikatu eta azalpen onargarria eman du lan mota hori egiten duen pertsonaren kasuan, telelana ezinezkoa dela agertzeko. Erantzunak lan espezifiko horretarako modu fisikoan presente egotea zergatik den beharrezkoa azaldu BEHAR du.

- Eraikuntza. Zaila da edozein tokitatik adreiluekin eta egurrarekin lan egitea.
- Kirolariak. Kirol hori jokatzeko, toki jakin batera joan behar duzu.
- Iturgina. Ezin duzu norbaiten harraska konpondu etxetik!
- Erretenak zulatzen bertan egon beharra baitaukazu.
- Erizaintza; zaila da pazienteak ondo dauden egiaztatzea Internet bidez.

Krediturik ez

0. kodea: Azalpena erdi begi-bistakoa den lan mota identifikatu du, baina ez du azalpenik eman EDO ematen duen azalpenak ez du zerikusirik telelanarekin.

- Erretenak zulatzea.
- Suhiltzailea.
- Ikaslea
- Erretenak zulatzea, lan gogorra delako. *[Azalpenak ez du argitzen zailtasunaren zergatia telelanerako]*

Erantzun eskasegia edo nahasia eman du.

- Bertan egon behar duzu lan hori egiteko. *[nahasia]*

Materiala oker ulertu duela erakusten du edo erantzun sinesgaitza edo zerikusirik ez duena eman du.

- Nagusia. Normalean iñor ez da zutaz arduratzen *[desegokia]*

9. kodea: Erantzun gabe.

4. galdera: TELELANA

R458Q04

Josune eta Iker, **biak**, zein baieztapenarekin egongo lirateke ados?

- A Jendeak nahi bezainbeste ordu lan egiteko baimena izan beharko luke.
- B Ez da ideia ona lanera iristen jendeak denbora gehiegi ematea.
- C Telelanak ez luke denekin funtzionatuko.
- D Lanak duen zatirik garrantzitsuena harreman sozialak izatea da.

TELELANA PUNTUAZIOA 4

GALDERAREN HELBURUA:

Osatzea eta interpretatzea: interpretazio bat garatzea.

Bi argudio testu laburretan agertzen den iritzi komuna ulertzea.

Kreditu osoa

- 1. kodea: B. Ez da ideia ona lanera iristen jendeak denbora gehiegi ematea.

Krediturik ez

- 0. kodea: Bestelako erantzunak.
- 9. kodea: Erantzun gabe.